

Odon Apraiz Buesa Gasteizen jaio zen 1896ko martxoaren 5ean, Florida parkearen eta Ama Birjina Zuriaren plazaren artean, erdibidean, dagoen Prado kalean.

Marianisten kolegioan egin zituen lehenengo ikasketak (1903-1905), eta gero Gasteizko Institutuan burutu ondokoak (1906-1912).

Behin Marianisten zuzendariak errietan eman zion: "Vd. no respeta la prohibición de hablar vascuence, señor Apraiz". Gaztetxo haren erru bakarra, lagunen artean *Bizkaitarra* eta *Gipuzkoarra* bezalako argitalpen abertzaleak zabaltzea zen. Ez baitzekien euskaraz oraindik.

Mutil eta gazte aurreratua izan zen, jakin-min handikoa, irakurle nekaezina, bereziki egunkariena. Eta garai batez behintzat, eltze guztietako burduntzalia, esan ohi den bezala, hain zuzen Euskal Herriak bizi izan zituen gerra arteko urte oparo haietan.

Euskarak orobat laster hartuko zuen leku berezia Odon Apraizen burubihotzetan, eta bere bizitza luzearen

zati handi bat, joriena zalantzarik gabe, hain zuzen gure hizkuntzari eta Euskal Herriari buruzko, eta haien aldeko, lanei eskainiko zien.

1

Odon Apraiz (1896-1984).



APRAIZTARRAK

Familia abantailatu baten altzoan jaio zen. XIX. mendearen bukaerako urteetatik aurrera zer esan handia izan zuten Apraiztarrek Gasteizko bizitzan.

Politikan, liberal foruzaleak ziren. Medikuak, arkitektoak, irakasleak... denek gizartearen aldeko lanbide liberaletan jardun zuten. Astialdietan, literatura, kirolak eta bestelako kultur-ekintzen zaleak ezeze, eragileak ere bagenituen.

Aita Odon Fermin, Filosofian Doktore, Gasteizko Ateneoaren lehendakari eta *El Anunciador Vitoriano* egunkariaren zuzendari izan zen, besteak beste. Osaba Julian, Gasteizko Institutuaren zuzendari eta Cervantesen ikertzaile bikaina. Osaba Ramon, medikua, *Revista de Medicina*



Odon Fermin Apraiz eta Juliana Buesak bederatziz seme-alaba izan zituzten. Argazkian (1964-VIII-19), ezkerretik eskuinera, Odon, Julia, Elena, Rosario, Ricardo eta Emilio, Haroko Colegio de la Enseñanza-n. Falta dira, zegoeneko hilak, Angel, Pilar eta Luis.



Fermin Odon Apraiz Saenz del Burgo (1851-1919), Odonen aita. Gizon saiatua, denetarakoa, kulturean bezala politikan ere nabarmendu zen, Gasteizko alkate izatera iritsiaz.

de Alava-ren sortzaile eta zuzendari, eta oso euskaltzalea.

Angel, anaia nagusia, historialari, unibertsitateko katedradun eta Eusko Ikaskuntzaren idazkari. Ricardo, Odonen ondokoa, "*El Licenciado Rompelanzas*" izenarekin zezenei buruzko idazle eta Numanciako Museoaren buru. Emilio, anaia txikia, arkitekto eta idazlea, Manuel Iradier Txangolari Elkartearen sortzaile eta lehendakari.

Etxean aukerako giroa aurkitu zuen, baita kitzika ere, beti mantenduko zituen jakin-nahia eta iritzi-askatasuna hazi eta hezi zitezten.

EUSKALDUNTZEN

Orduko Gasteizen euskara gutxi. Etxean, batere ez. Halaz ere, gaztegarerik atxiki zitzaion arbasoen hizkuntzari.

Izan ere, aitona, Saturnino Apraiz, bizkaitarra zuen, 1832an Rosario Sáenz del Burgo gasteiztarrarekin ezkondua. Odonek 11 urte zituela, Bermeora osterata egin zuten, aitonaaren familia hangoa zen eta. Orduan ikusi eta entzun zituenak hunkituta, bere buruari agindu zion euskara ikasiko zuela.

Ez zuen agindua luzatu: hiru urte beranduago lehenengo aurrerapenak egin zituen, bere kasa, euskarazko ikasbide batekin.

Salamancako Unibertsitatean hasi zenean (1912), ikaskide euskaldun batzuen laguntzaz ikasten jarraitu zuen.

Hamazazpi urterekin, 1913ko udan, karrerako lehenengo ikasturtea bikain gaituta itzuli zen etxera. Aitak saritzat zer nahi galdeturik, Aramaiora joateko baimena lortu zuen.

Bi hilabete igaro zituen han, baserri batean, mihia askatzeko behar zuen azken bultzada jasotzen.



El euskera o baskuENZE en 120 lecciones izeneko eskuliburu honekin hasi zen euskaraz ikasten. Azkueren izenean atera zen, 1896ean, Bilbon, baina askoren ustez Azkueren ikasleren batek egina da.

3

Aramaioko Goiko Errota baserria (Ibarra auzoa). 1913ko lehenengo uda harez geroztik, sarritan hartuko zuen bertarako bidea.



UNIBERTSITATEAN

Salamanca, Deustu eta Madrileko Unibertsitateetan Letrak ikasi zituen (1912-1917), Historiako Doktoregoa lorturik "El País Vasco en la época de la Revolución Francesa (1793-1795)" tesi-lanarekin.

Ikasketa hauek Salamancan osatu zituen, berriz, Artxibo, Liburutegi eta Museoen Sailean sartzeko ikastaldia burutuaz.

Lorturiko emaitzak gorabehera, ez zen ikasle "txintxo" horietakoa izan, buruan zerabamaika gauzak denbora kentzen baitzioten.

Salamanca, postas iristen zitzaion *Euzkadi* hartu eta hamabietako

eskolan irakurtzen zuen, ezkutuan. Logikako liburua kafesnez zipristindua zeukan, ikasgaiak gosalduta bitartean arinetan prestatzen zituelako.

Deustun, *Euzkadi* egunkaria irakurtzen jarraitzeko, Konpainiako ikasle-egoitzan debekatuta zegoenez gero, erosi eta Garate anaia atezainak uzten zion sartzen, inori ez luzatzeko hitzaren pean.

Madrilen, ikasle-irakasle euskotarrak Café Zahara-n biltzen ziren. Han irabazi zuen txantxetako izengoitia ez da nolana hikoia: "*Otón I, Emperador de las Vasconias y de la Bureba*".



Salamanca ikasle zelarik, 16 urterekin, Bizkaitarra astekariak argitaratu zuen bere lehengo euskarazko idaztia (1912-XI-30), ikasle euskotarrek Sabino Arana-Goiriren heriotzaren 9. urteurrenean paratutako omenaldiaren berri laburra emanez.

EUSKALTZAINDIAREN BEKADUN

1920an Euskaltzaindiak bekadun bat hautatu nahi izan zuen, Europako irakaslerik hoberenen aldamenean Linguistikaz jantzi zedin. Julio de Urquijo izan omen zen Apraiz proposatu zuena.

1920-1922 bitartean Parisen egon zen (Sorbonne-n, Collège de France-n eta Ecole d'Hautes Etudes-en), Gilliéron, Poirot, Dauzat eta Saroïhandy euskaltzalea irakasle izanik.

Tartean Société de Linguistique-ko kide hautatu zuten.

1922an Zurichera joan zen, han Jud, Gauchat eta besterekin ikasteko.

Urte bereko udan Italiako iparraldean, Piamonten, egin zen dialektologi-inkestan esku hartu zuen, *Atlas linguistiko suizo-italiano*-aren egileetatik bat zen Scheuermeier irakaslearekin.


8. Euskal-egunetarako astu-ia dagon batzordeari eskubide oso-osoa ematen zayo, egun eyek ondoen atontzeko.

9. Euskaltzaindiaren sorozpidez Parisen dagon Apraiz ikasle azkarari galdetu: Alemanira datoñen urtez loango ote litzaken bañan orio onek Alte Polikatpo lraizoz-enarekin zer ikuste baduelako, erabaki osoa urengo batzaraldirako laga da.

EUSKALTZAINDIA'REN BATZARAK

- I Euskaltzaindia nola ta noiz jaio ta geitu zan
- II Euskaltzaindia'ren lenengo urteko batzarak

Euskaltzaindiaren bileren agirietan, 1920-1921. Urteetan, Apraizen atzerriratzearen aipuak ugari.





Errepublikari ezarri zenean, Eibarko institutuan zegoen. Eibarko udalak Errepublikari gainerako Espainian baino egun bat lehenago aldarrikatu zuen (1931eko apirilaren 13an). Argazkian, Guardia Zibilean kuartelean Errepublikaren ikurrina altxatu zenean; trikornio ugari antzeman daiteke. Eskuineko behealdean, kamarari begira, Toribio Etxebarria

HISTORIAKO IRAKASLE

Noizbait behar eta 30 urterekin bere lehenengo lanpostu finkoa erdietsi zuen, Bartzelonako Unibertsitateko Filosofi eta Letren Fakultatean, irakasle laguntzaile gisa. Geografia eta Historia Modernoa irakatsi zuen (1926-1933).

Han bertan Aragoako dialektoari buruzko ikastaro ofizial bat ere eman zuen (1932).

Gero, hurrenez hurren, Eibarko (1933-1935), Tenerifeko La Lagunako (1935-1942) eta Reuseko (1943-1950) institutuetan Geografi eta Historiako irakasle eta katedradun izan zen.

Azkenik, Gasteizko Ramiro de Maeztu-koan iritsi zuen katedra, 1966an erretiratu zen arte.

Beti umoretsu, behin ikasle batek esan omen zion Viriato espainiarra eta katolikoa zela. Apraizen ateraldia. "Sí, y también afiliado a la Falange y las JONS, ¿verdad?".

Valenciako Chesteko Lorearen jaietan (1946ko urriaren azken igandean). Ezkerrean, Alberto Sánchez irakaslea eta erdian Maruja Millán anderea. Reuseko Institutuko irakasle genuen orduan.





Familiako belaunaldi berriekin, bazkalondoan



Baionako Euskal Museoan (1979ko urtarrulean) Georges Lacomberen jaiotzaren mendeurrenean egin ziren ospakizunetan

AZKEN URTEAK

1950ean behin betiko jaioterriratu zen. Itzultzearekin bateratsu argitalpenen sorta berriro hazten hasi zen, kanpoko zenbait kongresotara joateko baimena ere lortuaz.

1973an begietako bista galdu zuen; ez ordea lan gogoia, jakin-nahia eta buru ona, garai jakingarri bateko berriz betea.

Aparta zuen pasadizoak kontatzeko trebetasuna. Umorea eta ironia erabiltzen ongi zekien, hitzez zein idatziz. Aldi berean, maisu eta adiskideei buruz begirunez beterik mintzo zen: hunkigarria izan omen zen Baionako Euskal Museoan Lacombez

egin zuen hitzaldia haren jaiotzaren mendeurrenean (1979-I-26).

Azken urteetako bere osasun makalak ez zion laburtu euskal kulturaren joera berriak ezagutzeko gogoia.

Hitzaldi, mahai-inguru, euskararen aldeko ekintzak..., ahal zuen neurrian guztiek izan zuten lagun; Gasteizen ez zegoen berarekin konta ezin zezakeen kultur-ekitaldirik. Ezintzen hasi zenean, Endrike Knörr-engan aurkitu zuen euskarri ezeze lankide eta adiskide berri.

88 urterekin hil zen, Gasteizen, 1984ko irailaren 12an.

Odon Apraiz ikerlari burutsu gisa gogoratzea, paperen munduan murgildurik, bere alderdi interesgarrienetakoak ukatzea litzateke.


Gazte-denborako urteak hondarretaraino zukutu zituela esan liteke. Garai ezin hobea izan zen hura lana gogor egiteko gogoia bai, eta iritzia agertzeko beldurrik ez zeukanarentzat. Saria ederra gainera: euskararentzat izan ziren gertakaririk garrantzitsuenen lekuko izatea.

ARABAKO EUSKARAREN AZTARNEN BILA

1917an, 20-21 urterekin, Madrileko ikasketen azken urtean, gehienak ikaskide eta gehienak arabar ziren zenbaitekin hauteskundeetako zentsua fitxatu eta alfabetikoki ordenatu zituzten Arabako deiturak, Campionek buru egiten zuen Euskal Patronimia eta Toponimia Batzordearentzat.


Urte bereko abuztuan, 14 urteko mutil baten laguntzan, oinez egin zuen, bi egunetan, Landako tren-pausalekutik Araia eta Agurainerainoko bidea. Xedea, alde hartako euskararen arrastoak batzea, Bonaparteren datuak orduko egoerarekin erkatzeko.

9



"Historia del Vascuence en Alava" (Avance, 1954). Arabako euskararen historia ezagutzeko ezinutzizko den mapa honen eraketan, garrantzi berezia izango zuten gaztetako ibilaldiek.

10



Ideologia ezberdintasunei begiratu gabe, kultur eta gizarte mailan Euskal Herriaren alde lan egiteko prest zeudenak elkar zitzakeen erakunde bat sortu beharrez hasi ziren lanean Eusko Ikaskuntzaren eragileak.

EUSKO IKASKUNTZAREN SORRERAN

Eusko Ikaskuntza abian jarri zuen ideiarene asmatzaile Angel Apraiz izaki, ez da harritzekoa Odon ere han inguruan ibiltzea.

Nolanahi ere, jadanik bere burua ezagutzera ematen hasia zen, Bilbo eta Gasteizko agerkerietan lan pare bat argitaratuta.

Arantzazun egin ziren elkarte honen sorrerako bileretan (1917ko udan) esku hartu zuen, Luis Eleizalde, Engrazio Aranzadi Kizkitza, Isaak Lopez Mendizabal eta Federiko Belaustegigoitiarekin, besteren artean.

Oñatiko Lehen Kongresuan (1918) ere ez zuen huts egin. 21-22 urte zituen.



EUSKALTZAINDIAN

Urte beretsuetan, Euskaltzaindia ere sortu zen. Lehenengo urgazle andanakoa dugu, hain zuzen 1919ko urriaren 26an izendatuak izan ziren Altube, Manterola, Lekuona, Orixe, Jean Saint-Pierre, Jean Etxepare, Gavel, Menéndez Pidal eta Saroïhandy-rekin, besteren artean.

Hasiera hartan, Apraizekin batera, beste hiru arabar bakarrik: Olabide euskaltzain osoa, eta Belaustegigoitia eta Luis Gonzalez de Etxabarri, *Aizkibeldar Bingen* urgazleak.

Olabide, Oleaga eta hirurek osatu zuten lehenengo Toponimia Batzordea (1920-II-16).

28 partaideren artean, eta euskaldunak ez ziren falta, Apraizena da Etxegarairen omenaldi-liburu marduleko euskarazko bakarra. Aitzol eta Lekuonaren arreta eta iruzkinak arakarri zituen lan honekin.




ARABAN EUSKARAZ

Mende honen hasieran, euskaltzaletasuna pil-pil zebilen Gasteizen, batez ere gazteen artean. Han eta hemen, bakanka, euskarazko ikastaroak antolatzen ziren. Haietako bat izan zen 1917an Odon Apraizek Ateneoan eman zuena.

1928ko urtarrilaren 2an, Eusko Ikaskuntzaren ordezkartzan nondinahiko euskaltzale arabarrak batu ziren, Arabaren euskal ezaugarrien gorde-lanari ekiteko asmoz. Hortik ekainaren 13an Baraibar Taldea sortu zen, J.M. Díaz de Mendivil lehendakari, J. Unzalu lehendakariorde eta F. Landaburu idazkari zirelarik.

Ia ez dago esan beharrik: Odon taldekide dugu, Bartzelonatik bada ere.

Estreinako ikastaroa Gasteizko Ateneoan (1917an) eman zuen; ikasleen artean, Angel Apraiz, Fernando Amaraica, Doublang anaiak eta beste gasteiztar ezagun asko. Zurichen, berriz, bere irakasleak (Jud, Steiger...) ikasle izan zituen (1922).



Ezarri zituzten hasierako xedeen artean, Arabako euskaldunen zentsua egitea, Arabako iparrean euskal dotrinak banatzea eta herri-jaiak antolatzea zeuden.

Euskal jai haietako batean (Gatzaga, 1929-VII-7), meza, txistu, ezpadadantza eta bazkariarekin, Odonek hitzaldia izan zuen. Hara zer zioen orduan: "Bagagoz beste batzuk, umetan erdeldunak izanik, euskerea ikasteko alegina egin dogunok [...] Erakutsi gura dautzuegu Arabako ta Gasteizko euskaldasuna eztaula berriz bizi biar, inoiz il etzalako, baina bai orain berpiztu berriz-biztu eragin gura dogula, eta au danau ereisteko itxaropen ederra dogula".

EUSKAL IDAZLE

Bere euskal idazlanek mordo handirik ez egin arren, aitzindari eta eragile gisa Odon Apraizek leku berezia irabazia dauka Arabako euskal idazleen artean.

Olerkigintzan ere zertxobait saiatu zen. 1932ko maiatzaren 1ean *Eusko Lurra*-k Internazionalaren euskarazko lehen bertsioa agertu zuen, berak egina.

Gero kontatzen zuenez jatorrizko letra jakin gabe, musikari jarraiki idatzi zuen. Hona hemen:

Inun be'ez txiro'ta aberatsik
piper potia birrindu
jopuak beharrez buitza'uta
ogia geurenduko'gu
Gizon oro askatu
baita aberri danak
zuzentzea, bakea,
behera izkiludunak.
Gizon oro askatu
baita aberri danak,
didartu daigun batera
lur-anaitasuna.



Albertiren *Un fantasma recorre Europa* poema famatuaren itzulpena. Gasteizko *Cinco* aldizkari surrealistaren lehenengo alean (1934ko apirilean) atera zuen. Aldizkari honek tarteka euskarazko lanak argitaratu zituen bere bizitza laburrean.



LUMA ZORROTZA


Sinisten zuenaren alde egiteko, ez zen ezer ez inoren aurrean isiltzen; eta bazekien luma zorrotzen.

El Sol egunkarian Ernesto Giménez Caballerok, orduan ezkertiarra eta geroago faxista ezaguna, Barandiaran eta *Eusko Folklore*-ren lanaren kontra egin erasoari erantzuna egin zion (1925eko urrian).

ABERTZALEA

Euskara ikasten hasi eta ia berehala, 15 urte zituenean, zertxobait lehenago (1907-X-12an) sortutako Gasteizko Centro Vasco-ko kide egin zen, bertako euskal giroak erakarrita.

Han batzen ziren gehienak bizkaitar-gipuzkoarrak ziren: Gasteizko euskaldunen zati handi bat, ziurrenik. Berak esanda, oharkabean igaro



Bartzelonan zegoela, 1931ko ekainean Marcelino Domingo Instrucción Pública-ko ministroari telegrama bat bidali zion, berak eta bere ikasleek elebitasuna eskatuaz. Argazkian, telegramaren zirriborroa.

zitzaion orduan "Euzko etxe" hura, garaian zabaldu ziren guztiak bezalaxe, jeltzalea zela.

Ondoko urteetan harreman estuak mantenduko zituen EAJrekin, baina gero eta urrunago sentitu zen hainbat gaitan eskuinarekin bat egiten zuen alderdi horrekin.

1930ean Eusko Abertzale Ekintza (EAE/ANV) EAJtik bereizi zen,

alderdiko aurrerazaleenak beregana bilduaz, Apraiz tartean.

Garai hartan Bartzelonan zegoen, baina batez ere Anakleto Ortuetaren bitartez gertuki jarraitu zituen alderdi berriaren sormeneko gertakuntzak eta haren ideologia berriaren eztabaida.

Politikarako isuri nabarmena zuen. Gerra aurreko EAEn idatzi asko bereak dira eta Eibarko garaietan Deba Arroko ordezkaria izan zen.

15



Sabino Arana-Goirenen urteurreneko zenbakian idazteko gonbitea.

EUSKALARI EMANKORRA

Odon Apraiz historialari eta hizkuntzalariaren lanetan bi alderdiek pareko garrantzia izan dute.

Lan luzeak gutxi ditu, eta batzuk beldurrez (bere tesia bezala), bestek ezinbestez, gehienak argitaragabe atxiki zituen luzaro.

Beraz, Apraiz ikerlari gisa definitu zuten argitalpenak, ehundik gora kontatzen direnak, ohar laburrak dira gehienetan, gai oso zehatz bati buruzkoak, baina aldi berean arlo nagusi anitz ikutuaz: historia, ohiturak, toponimia eta antroponimia, euskararen historia, fonetika, bibliografía, etab.

Non begiak ipini, han geratzen zen une batez, erleen modura gai batetik bestera jauzi egitea maite baitzuen, bere jakin-nahi erraldoiaren arabera.

Aldizkari teknikoetan bezala egunkari-astekarietan ere bazekien idazten. Ez zion dibulgazio-lanari beldurrik, ez eta eztabaidari: zalantzazko puntuak argitzen, nahasbideak eragozten, euskal kulturako berriak eta Euskal Herriko historiako pasarteak ezagutzera ematen jardun zuen etengabe.

Izengoiti ugari erabili zuen: Olarizu, P. de Arizondo, Ziarpá, Argitza, Olari,

etab. Garaiari amore emanez, "Apraiz'tar Oto" izenarekin ere agertzen zaigu tartean behin.

Gerra aurrean zerbait ziren guztietan aurki daitezke bere idatziak:

Bizkaitarra, Arabarra, Euzkadi, Eusko Lurra, Euskal Erriaren Alde, Jesusen Biotzaren Deia, Gure Herria, Revista Intemacional de Estudios Vascos, Yakintza, etab.

Bibliografía, urteetan Kezkaturik eduki zuen gai. Kezka horren fruitu, honelako fitxa mordoa, ia 1000 inguru, euskal gaiet buruzko liburuak jasoaz, Vinsonen lanaren osagarri.



Bere lehendabiziko argitalpen "serioa". 20 urte zituen.

OINARRIAK

Salamanca eta Deustun *Euzkadi* ezin utzirik zebilen unibertsitari hura, oraindik euskara ikasten ziharduena, derrigor euskal gazetan sabindarra izan behar.

Rufo Mendizabal josulagun donostiar eta helenista ospetsuak zuzendu zion bidea: "Hara, Apraiz: euskal filologian gauza bakar batek balio du, Julio de Urquijok eta haren *Revista Intemacional-ek*".


ERIZKIZUNDI IRUKOITZA

1925ean, Euskaltzaindiak Iparraldera bidali zuen, Georges Lacombe euskaltzainarekin hasieran, gero bakarrik, hango inkestak burutu zitzaizkion.


Lapurdin hasi eta Zuberoan buka, bertako 17 bat herrik izan zuten Apraizen bisitaldia.



17



Julio de Urquijok zuzentzen zuen *Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkaria*-n (RIEV) 1919tik aurrera lan ugari argitaratu zuen. "Un caso de fonética histórica..." lanari Julien Vinson euskaltzale frantsesak "savant" (jakintsu) iritzi zion, eta Apraiz ikerlari gazteak hortik aurrera jarraitzeko adorea hartu zuen.



Erizkizundi Irukoitza, Euskaltzaindiak 1921-1925 bitartean egin zuen dialektologi-inkesta. Asmoa herri bizian zer zebilen nagusi jakitea zen, euskara idatzizkoari legeak eman aurretik. Argazkietan, Azkueren gutuna (1924-V-30) Iparraldeko inkesta egiteko eskatuaz; Apraizen gutuna Azkueri, Donesteben Baigorri 1924an; eta berak betetako kuadernotxoetatik bat. Bizikletan ibili ohi zen herriz herri.

Geroago, Deba aldean eginbide bera bete zuen, bizkaiera eta gizpuzkeraren arteko mugaren aztarnen bila, 12 herritako kuadernotxoak beteaz.

Hartutako datuen zehaztasunean nabarmendu zen galdetzaile gazte hura. Europan zehar egiten ari zen Dialektologia ezagututa gero, nola ez harritu Orixeren ateraldi harekin: "Nire aitaren semea ez da mapak egiteko sortu".

ARABA BIHOTZEAN

Euskarari eta Euskal Herriari bizitza guztian zehar erakutsi zien atxikimendua txikia ez izan arren, arabarrak Arabari lorea zor eta bere lan gehienak -baita sakonenetakoak- jaioterriaren gaiei eskaini zizkien.

Arabaren euskal sustriak aztertzea izan zen batez ere bere zeregina, arabarrak halako gauzetan jantziaz eta zaletuaz bide batez.



1923-1925 eta 1932-1933 urteetan, egunkari ezberdinetan, Olarizu-gure Odon- etimologia fantastikotan oinarrituta Gazteiz defendatzen zutenekin kantxan aritu zen, zaspai bat egunkarietako artikulu Gasteiz-en alde atereaz. Bere lehiari zor dio Arabako hiriburuak bere izen zaharra den bazala errespetatua.



19

Lanik garrantzitsuena, *El vascuence en Vitoria y Alava en la última centuria* (1850-1950) deiturikoa dugu. Arabako euskararen 1850 inguruko egoeraz eta ondorengo atzerapenez jakin daitekeena biltzeaz gain, probintzia honetan argitaratu diren euskal liburuen, burutu diren euskarari buruzko ikerketen eta euskararen aldeko ekintzen berri ematen du.

EZAGUTZAK

Euskaltzaindiak 1968-XII-4an euskaltzain ohorezko izendatu zuen eta 1976-XII-27an omenaldia egin, Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin.

1974-XII-27an Euskal Herriko Adiskideek ohorezko bazkide izendatu zuten, Lopez Mendizabal eta G. Manterolarekin batera.

1983an Eusko Ikaskuntzak Manuel Lekuona saria eman zion, bizi guztiko haren lana gogoan harturik.



Lan honekin 1950ean Gasteizko Aurrezki Kutxak antolatutako lehiaketan saria irabazi zuen, oraindik Reusen bizi zelarik. 26 urtetan argitaragabe egon zen. Hitz hauekin amaitzen da: "Los alaveses amantes del euskera, que no renegamos de nuestra progenia, podríamos sintetizar en tres palabras nuestro *bizi-nahi*, nuestra 'voluntad de vida' y perduración colectiva, afirmando que nuestro amor a la vieja lengua de los vascos es de 'antes, ahora y siempre'. LEN ORAI TA BETI' hain zuzen lana aurkezterakoan erabili zuen lema.

1976an proiektatua,
Apraizen 85.
urtebetetzeraino ez
zen kaleratu (1981).

